

TXINGUDI - ABENDU KULTURALA - 2023

2023. urtea amaitzear dagoen honetan, maila guztietarako ekitaldiz beteriko hilabetea antolatu du Txingudik beste behin ere. Gaur bertan euskal produktuen tonbola zozketa antolatu du euskara mintegiak; bertan gureak ditugun produktuak zozketatuko dira. Horretaz gain, atsedenaldirako bonoen erabilera zozketa izan dugu eta 3 mitologia bono zozketatu dira. Aste honetan zehar beste aktibitate batzuk ere izan ditugu; DBH2. mailakoek Iturraran parketxea joan dira bertako ingurune fisiko eta etnografikoa ezagutzera.

Gabonetako ospakizunak iritsi bitartean izango ditugun hiru asteetan beste hainbat kultura ekitaldi ere izango ditugu; kultura eskolaren bitartez lehen mailakoentzat "Mundua Pitzatuta dago" antzezlanaren Donostiako Santa Teresa komentuan eta butterfly effect (gizakiaren eboluzioa) antzerkiak, talde kohesioarekin lotuta DBH3. mailakoek hainbat irteera antolatu dituzte Donostia (Tabakalera eraikina), Lasarte eta Zumarragara (Santa Luzia feria) besteak beste.

Arlo ludikoago batean kokatzen dira 1. eta 2. mailakoentzat, alde batetik, abenduaren 15erako antolatu den bertsolaritza tailerra eta abenduaren 11ko asterako Irungo liburutegira antolatutako irteerek bestetik.

Azkenik, ezin ahaztu San Tomas eguna. Aurtengoan ere hainbat eta hainbat ekintza antolatuko dira eta horietan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu. 4.mailako ikasleek prestatuko dituzten txistorra pintxoak dastatu baino lehen animatu sokatira, boleibol edo futbol lehiaketetan parte hartzera!

TXINGUDI - ABENDU KULTURALA - 2023

Hona hemen Txingudin abenduan zehar egingo diren ekitaldiak zerrendatuta:

EGUNA	TALDEA	EKINTZA
Abenduak 1	DBH 2. maila	Iturraran parkea
Abenduak 5	DBH 2 maila	Iturraran parkea
Abenduak 11 eta 18 astean	DBH 3 maila	Talde kohesioa (Zumarraga, Donostia...)
Abenduak 15	DBH 1 eta 2 mailak	Bertsolaritza
Abenduak 11 eta 14	DBH 1 maila	Mundua pitzatuta dago
Abenduak 11-15 astean	DBH 4 maila	Emakumeak Oholtzara
Abenduak 11-15 astean	DBH 1 maila	Irungo Liburutegira irteerak
Abenduak 18	DBH 4 maila	Kultur Eskola antzerkia
Abenduak 12, 20 eta 22	DBH 3 maila	Orkestra Lab
Abenduak 20	DBH 1	Butterfly Effect
Abenduak 21	DBH 1-2-3-4	San Tomas
Abenduak 22	DBH 1 maila	Butterfly effect antzerkia